

2012 · UNIBERTSITATERA SARTZEKO PROBA

Literatura unibertsala

- BATXILERGOA
- LANBIDE HEZIKETA
- GOI MAILAKO HEZIKETA-ZIKLOAK

Azterketa

Kalifikazio eta zuzenketa irizpideak



EUSKAMPUS

Nazioarteko Bikaintasun Campus
Campus de Excelencia Internacional

en la red de



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK

2012ko UZTAILA

LITERATURA UNIBERTSALA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

JULIO 2012

LITERATURA UNIVERSAL

Azterketa honek bi aukera ditu. Haietako bati erantzun behar diozu.

Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jarri behar duzula.

Aukera bakoitzean 4 galdera daude. Bakoitzaren puntuazioa honako hau da:

1. galdera: 3 puntu
2. galdera: 2 puntu
3. galdera: 3 puntu
4. galdera: 2 puntu

2., 3. eta 4. galderak nahitaezko testu eta irakurketei dagozkie. 1. galdera, berriz, irakasgaiaren beste edukiekin lotuta dago.

Este examen tiene dos opciones. Debes contestar a una de ellas.

No olvides incluir el código en cada una de las hojas de examen.

En cada una de las opciones hay 4 preguntas. La puntuación de cada una de ellas es la siguiente:

- Pregunta 1: 3 puntos
- Pregunta 2: 2 puntos
- Pregunta 3: 3 puntos
- Pregunta 4: 2 puntos

Las preguntas 2, 3 y 4 se refieren al texto y a las lecturas obligatorias. La primera pregunta, en cambio, afecta al resto de los contenidos de la materia.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK

2012ko UZTAILA

LITERATURA UNIBERTSALA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

JULIO 2012

LITERATURA UNIVERSAL

TESTUA

—¿Quieres hacerme creer que te mató el ahogo, Juan Preciado? Yo te encontré en la plaza, muy lejos de la casa de Donis, y junto a mí también estaba él, diciendo que te estabas haciendo el muerto. Entre los dos te arrastramos a la sombra del portal, ya bien tirante, acalambrado, como mueren los que mueren muertos de miedo. De no haber habido aire para respirar esa noche de que hablas, nos hubieran faltado las fuerzas para llevarte y contimás para enterrarte. Y ya ves, te enterramos. [...]

—Es cierto, Dorotea. Me mataron los murmullos.

«Allá hallarás mi querencia. El lugar que yo quise. Donde los sueños me enflaquecieron. Mi pueblo, levantado sobre la llanura. Lleno de árboles y de hojas, como una alcancía donde hemos guardado nuestros recuerdos. Sentirás que allí uno quisiera vivir para la eternidad. El amanecer; la mañana; el mediodía y la noche, siempre los mismos; pero con la diferencia del aire. Allí donde el aire cambia el color de las cosas; donde se ventila la vida como si fuera un murmullo; como si fuera un puro murmullo de la vida...»

—Sí, Dorotea. Me mataron los murmullos. Aunque ya traía retrasado el miedo. Se me había venido juntando, hasta que ya no pude soportarlo. Y cuando me encontré con los murmullos se me reventaron las cuerdas.

»Llegué a la plaza, tienes tú razón. Me llevó hasta allí el bullicio de la gente y creí que de verdad la había. Yo ya no estaba muy en mis cabales; recuerdo que me vine apoyando en las paredes como si caminara con las manos. Y de las paredes parecían destilar los murmullos como si se filtraran de entre las grietas y las descarapeladuras. Yo los oía. Eran voces de gente; pero no voces claras, sino secretas, como si me murmuraran algo al pasar, o como si zumbaran contra mis oídos. Me aparté de las paredes y seguí por la mitad de la calle; pero las oía igual, igual que si vinieran conmigo, delante o detrás de mí. No sentía calor, como te dije antes; antes por el contrario, sentía frío. Desde que salí de la casa de aquella mujer que me prestó su cama y que, como te decía, la vi deshacerse en el agua de su sudor, desde entonces me entró frío. [...] Vi que no había nadie, aunque seguía oyendo el murmullo como de mucha gente en día de mercado. Un rumor parejo, sin ton ni son, parecido al que hace el viento contra las ramas de un árbol en la noche, cuando no se ven ni el árbol ni las ramas, pero se oye el murmurar. Así. Ya no di un paso más. Comencé a sentir que se me acercaba y daba vueltas a mi alrededor aquel bisbiseo apretado como un enjambre, hasta que alcancé a distinguir unas palabras casi vacías de ruido: "Ruega a Dios por nosotros." Eso oí que me decían. Entonces se me heló el alma. Por eso es que ustedes me encontraron muerto.

-Mejor no hubieras salido de tu tierra. ¿Qué viniste a hacer aquí?

-Ya te lo dije en un principio. Vine a buscar a Pedro Páramo, que según parece fue mi padre. Me trajo la ilusión.

-¿La ilusión? Eso cuesta caro. A mí me costó vivir más de lo debido.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO PROBAK

2012ko UZTAILA

LITERATURA UNIBERTSALA

PRUEBAS DE ACCESO A LA UNIVERSIDAD

JULIO 2012

LITERATURA UNIVERSAL

A AUKERA

1. Azaldu ezazu Errenazimentuaren ezaugarria den munduaren eta gizakiaren ikusmolde berria, eta, adibideak emanaz, erakuts ezazu nola islatu zen mundua eta gizakiaren ikusmolde berri hori garai hartako literaturan. (3 puntu)
2. Identifikatu zer obratakoa den pasartea, eta adierazi izenburua, egilea, haren nazionalitatea eta zer une historikotan kokatua dagoen. Pasartean, Pedro Páramo izeneko pertsonaia bat aipatzen da: azaldu ezazu nor den eta zer ezaugarri ematen dizkion obrak, eta egin ezazu lotura pertsonaiaren eta bera sortzen den testuinguru historikoaren artean. (2 puntu)
3. Norenak dira bigarren paragrafoan letra etzanez agertzen diren hitzak? Pasartearen beste zatien garai berari dagozkio? Zure erantzunak abiapuntutzat harturik, azaldu itzazu zer berritasun ekarri zizkion obra honek bere garaiko eleberrigintzari kontakizunaren denbora-antolaketari eta narrazioaren ahotsari (edo ahotsei) dagokienez. (3 puntu)
4. Dorotearen ilusioari buruzko azken esaldiari erreparaturik, uste duzu ideia hori obra osora estrapola daitekeela? Ados zaude esaldi horrekin? Argudia itzazu zeure erantzunak, eta erlazioa itzazu zeure bizipen eta iritziekin eta obraren irakurketak eragin zizun inpresio orokorrarekin. (2 puntu)

B AUKERA

1. Azaldu ezazu Europako abangoardia poetikoen agerpena XIX. mendeko pentsamenduaren krisiaren testuinguruan. Adibideak erabiliz azaltzeko, aukeratu itzazu abangoardiako mugimendu nagusietariko bi eta eman itzazu haien ezaugarriak. Aipa itzazu abangoardiako poetarik adierazgarrienen izenak (bi, gutxienez). (3 puntu)
2. Identifikatu zer obratakoa den pasartea, eta adierazi izenburua, egilea, nazionalitatea eta zer une historikotan kokatua dagoen. Azaldu ezazu zergatik hartzen den obra hau "diktadore-nobela"ren aurrekaritzat eta zer gorabehera historikok ekarri zuten nobela mota hori agertzea. Aipa ezazu "diktadore-nobela"ren adierazgarri den beste obraren bat. (2 puntu)
3. Azaldu ezazu zer den "errealismo magiko" deitzen zaion hori, eta koka ezazu korrante horretan goiko pasartea duen obra. Ba al dago errealismo magikorik pasartean? Argudia ezazu zure erantzuna, eta aipa itzazu pasartearen zati batzuk argudioari laguntzeko. (3 puntu)
4. Pasartean Juan Preciadoreen heriotza kontatzen da, baina oso modu berezian, kontuan hartzen badugu zein den heriotzaren eragilea eta nor den kontatzailea. Azaldu itzazu gorabehera horiek, eta erlazioa itzazu heriotzak obra osoan duen eginkizunarekin. Horri dagokionez, zer inpresio eragin zizun eta zer sentimendu piztu zizun obraren irakurketak? (2 puntu)



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

LITERATURA UNIBERTSALA

OHARRA

- Oro har, puntu bat kendu ahal izango da (gehienez) ortografia-akatsengatik. Halaber, puntuak gehitu ahal izango dira, baldin eta adierazpena egokia, koherentea eta kohesioduna bada.
- Ebaluazio-adierazle batzuei puntuazio jakin bat esleitu zaie. Hala ere, beste adierazle orokorrako batzuetan, puntuazio globala ematen zaio galdera osoari, eta zuzentzailearen gain uzten da bakoitzari zenbat puntu eman.

A AUKERA

1. galdera (3 puntu)

- Errenazimentuko pentsamenduaren irudi orokor eta koherente bat ematea, eta haren berrikuntza nagusiak azpimarratzea: 2 puntu.
- Berrikuntza horiek erakusten dituzten Errenazimentuko bi obra, gutxienez, aipatzea: 1 puntu.

2. galdera (2 puntu)

- Eskatutako datu zehatzak (egilea, obra, generoa...) identifikatzea: 1 puntu.
- Pedro Páramo pertsonaiaren ikuskera ulertzaile bat ematea, bere gizarte-erreferenteei lotuta dagoena: 1 puntu.

3. galdera (3 puntu)

- Letra etzanez dagoen testua Dolores Preciado pertsonaiarena dela esatea eta zer garairi dagokion identifikatzea: 1 puntu.
- Rulforen obraren bereizgarriak azaltzea kontakizunaren denbora-antolaketari dagokionez: 1 puntu.
- Obraren ezaugarria perspektiba anizkoitza dela jakitea eta azaltzea: 1 puntu.

4. galdera (2 puntu)

- Gai izatea obraren ikuskera propio bat, ulertzailea, egituratzeko.
- Iritzia koherenteki eta eskatutako gaia ardatz duela ematea.
- Obraren edukiaren eta bere bizipenen arteko lotura egitea.



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

B AUKERA

1. galdera (3 puntu)

- Abangoardia-mugimenduak beren testuinguru historikoan kokatzea: 1 puntu.
- Abangoardia-mugimenduen ezaugarriak modu egokian adieraztea, haietako bitan zentratzea eta haien bereizgarriak identifikatzea: 1,5 puntu.
- Mugimendu horietako gutxienez bi poeta adierazgarri aipatzea: 0,5 puntu.

2. galdera (2 puntu)

- Eskatutako datu zehatzak (egilea, obra, generoa...) identifikatzea: 1 puntu.
- Diktadore-nobelaren ezaugarriak ezagutzea eta bere erreferente historikoekin erlazionatzea: 0,75 puntu.
- Diktadore-nobelaren bat aipatzea: 0,25 puntu.

3. galdera (3 puntu)

- Errealismo magikoa Hispanoamerikako literaturan modu egokian kokatzea eta ezaugarritzea: 1 puntu.
- Rulforen nobela errealismo magikoarekin lotzen duten elementuak ezagutzea, eta nobela hori korrante horren aitzindaria dela jakitea: 1 puntu.
- Proposatutako testuan elementu horiek identifikatzeko gai izatea: 1 puntu.

4. galdera (2 puntu)

- Obraren bereizgarriak, proposatzen den gaiarekiko, modu pertsonalean ezagutzea.
- Obraren interpretazio ulertzaile bat egiteko gai dela erakustea.
- Obraren edukiaren eta norbere bizipenen arteko lotura egitea.
- Bere iritzia modu koherentean adieraztea.